



LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Justizia Sailburuordetza  
Justizia Administrazioako ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE TRABAJO Y  
JUSTICIAViceconsejería de Justicia  
Dirección de la Administración de Justicia

## OHARRA / AVISO

COVID-19ak eragindako osasun egoera dela eta, honakoa izango da 2020-2021 ikasturterako euskara ikastaroen eskaintza:

a) Aurrez aurrekoa: klaseak euskaltegian izango dira, ikasleak bertan daudela. (Ohiko modalitatea)

b) Telematikoa taldeka: klaseak on-line (plataforma birtuala) izango dira, eta ikasleak klasearen orduan konektatu beharko dira.

c) Mistoa: egun batzuetan, klaseak euskaltegian izango dira, aurrez aurrekoa, eta beste batzuetan online taldean (plataforma birtuala).

d) Autoikaskuntza: Bakarkako online ikasketa. (Ohiko modalitatea)

Modalitate batzuk ordutegi zehatz batzuetara mugatuko dira. Eskeraan aukeratutako modalitatea zehaztu beharko da.

Debido a la situación sanitaria provocada por el COVID-19, la oferta de cursos de euskera 2020-2021 es la siguiente:

a) Presencial: las clases se impartirán en el euskaltegi, con la asistencia de los/las alumnos/as. (Modalidad habitual)

b) Telemático en grupo: las clases se impartirán on-line (plataforma virtual), los/las alumnos/as deberán conectarse a la hora de la clase.

c) Mixto: unos días las clases serán presenciales en el euskaltegi y otros días telemático en grupo (plataforma virtual).

d) Autoaprendizaje: Aprendizaje on-line individual (Modalidad habitual)

Algunas modalidades estarán limitadas a horarios concretos. En la solicitud se deberá especificar la modalidad por la que se opte.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 26a

**JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA**



LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Justizia Sailburuordetza  
Justizia Administrazioiko ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE TRABAJO Y  
JUSTICIAViceconsejería de Justicia  
Dirección de la Administración de Justicia

**EBAZPENA, 2020KO EKAINAREN 26KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA,  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DAUDEN  
FUNTZIONARIOENTZAKO EUSKARA-IKASTAROETARAKO DEIALDIA EGITEN DUENA.**

**2020/2021 IKASTURTEA  
(DEIALDI OROKORRA)**

Lan eta Justizia Saileko Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten Justizia Administrazioiko funtzionarioen euskarazko hizkuntza-gaitasuna sustatzeko eta bultzatzeko xedez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko Hizkuntza Normalizazioari buruzko ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz, hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak deitu ditu 2020/2021 ikasturterako.

Horregatik,

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra. – Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioei zuzendutako euskara-ikastaroen deialdia, 2020/2021 ikasturterako, ebazpen honen I. eranskinean jasotako oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 26a

  
M<sup>a</sup> Isabel Gabriel Bellido  
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

## I.ERANSKINA

### OINARRIAK

#### **Lehena. - Xedea**

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen kidegoetako langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna sustatzea eta bultzatzea.

#### **Bigarrena. - 2020-2021 ikasturterako deialdiak**

Justizia Administrazioko Zuzendaritzak bi deialdi argitaratuko ditu 2020-2021 ikasturterako. Deialdi hau 2020-2021 ikasturteko deialdi nagusia da, eta osorik arautzen du.

Ikastaroen eskaintza lan-ordutegira zein lanaz kanpoko ordutegira hedatzen da. Autoikaskuntzako ikastaroei dagokienez, hauxe da 2020-2021 ikasturterako deialdi bakarra.

2020-2021 ikasturteko bigarren lauhilekorako eskaintza deialdi osagarri baten bidez egingo da. Azaroan argitaratuko da, eta Justizia Administrazioko Zuzendaritzaren aurrekontu-erabilgarritasunaren mende egongo da.

#### **Hirugarrena. – Deialdi honen hartzaileak**

1. Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako, Laguntza Judizialeko eta Auzitegi Medikuntzako kidegoetako langileak, baldin eta karrerako funtzionarioak edo Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko bitarteko funtzionarioak badira.

Bitarteko funtzionarioek deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, baldin eta izendapenaren iraupena eskatutako euskara-ikastaroaren iraupenaren berdina edo luzeagoa bada.

Era berean, lanaldiaren laurdenetik gorako murrizketa duten funtzionarioek lanalditik kanpoko ordutegian soilik eskatu ahal izango dituzte euskara-ikastaroak.

2. Ez zaie euskara ikasteko lizentzia berririk emango Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko eta Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionarioei, C1 maila (egiaztatua ala ez) lortu

badute. Salbuespen gisa, lanorduetatik kanpo euskara ikasteko azken lizentzia eman ahal izango zaie kidego horietako langileei, baldin eta C1 maila lortu badute baina egiaztatu ez badute.

Auzitegiko Medikuen eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketaren kidegoetako langileei ez zaie euskara ikasteko lizentzia gehiagorik emango C1 maila egiaztatu ondoren.

### **Laugarrena. – Eskaera aurkezteko baldintzak**

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen kidegoetako langileek, baldin eta:

1. Eskabidea egiteko unean eta ikastaroa hasteko unean ere zerbitzu aktiboan dauden langileak.
2. Eskaera arduradun funtzionalari jakinaraztea, edo haren oniritzia izatea, deialdi honetan hala xedatzen denean.

### **Bosgarrena. - Eskaerak**

Funtzionarioek izena eman duten moduluetarako bakarrik izango dute aukera. 2 eta 5 orduko ikastaroak eskatzen badira, 5 orduko ikastaroak izango du lehentasuna, baina ematen ez bazaio, 2 orduko ikastaroaren aukera aztertuko da.

1. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko **ekainaren 26tik uztailaren 5era** bitartekoa izango da, egun biak barne. Data horretatik aurrera ez da eskabide berririk onartuko.

2. Eskabidea aurkezteko modua

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek "*euskara-ikastaroetarako eskaera-orria*" (II. eranskina) bete beharko dute, eta posta elektronikoko bidez **eskatzailearen arduradun funtzionalari kopian (CC) ipinita** helbide elektronikoko honetara bidali: [n-laskibar@euskadi.eus](mailto:n-laskibar@euskadi.eus)

**Argibideetarako telefono zenbakia: 945 01 91 59**

## Seigarrena. – Eskainitako ikastaroak

Onartutako eta baztertutako langileen behin-behineko zerrendak argitaratu aurretik bete behar dira puntu honetan jasotako baldintzak eta betekizunak, C1 mailakoak izan ezik, euskara ikasten jarraitzeko lizentziaren amaiera ekar baitezake.

### 6.1.- Bi orduko ikastaroak

#### 6.1.1.- Lanorduetan

Oro har, deialdi honetan ezarritako ordutegitik kanpo ez da beste ordutegirik onartuko (ikus hogeigarren oinarria. Ordu-konpentsazioa).

Lan-ordutegiko ikastaroen ordutegia honako hau da:

Goizez: aurrez aurrekoak

8:00etatik 10:00etara.

Arratsaldez: taldean; aurrez aurrekoa, telematikoa ala mistoa (azken bietan konexioa ezin izango da lanpostutik egin)

15:00etatik 17:00etara ala 15:30etik 17:30era

16:00etatik 18:00etara ala 16:30etik 18:30era

Ikastaroetara goizez joaten diren funtzionarioek, oro har, gehienez 20 minutu izango dituzte, eskolak amaitzean, euskaltegitik beren lantokira joateko (10:20ak arte gehienez).

#### 6.1.2. Lanorduetatik kanpo

Ikastaro bat lanorduetatik kanpo egiten dela joko da 17:00etatik aurrera edo ondoren hasten denean. Modalitate hori taldekoa izango da; aurrez aurrekoa, telematikoa eta mistoa.

### 6.2. Ikastaro trinkoak

Ikastaro trinkoak izango dira egunean bost irakastordu aurrez aurre edo gehiago irauten dutenak. Ikastaro horietara joateak lanaldi osoko lan-liberazioa ekarriko du.

2020/2021 ikasturtean, gehienez 36 pertsonak parte hartu ahal izango dute ikastaro horietan, eta gehienez ere lauhileko bateko iraupena izango dute. Beraz, deialdi osagarriarako liberazio-eskaintza, bigarren lauhilekoari dagokiona, deialdi orokor honetan emandako baimenen kopuruaren mende egongo da.

Eskainitako liberazioak baino eskaera gehiago onartzen badira (36), hautaketa Zortzigarrena. Lehentasun irizpideak. oinarrian jasotako irizpideen arabera egingo da.

#### 6.2.1. Betekizunak.

1. Betetzen ari den kidegoari dagokion euskara-maila (egiaztatua ala ez) lortu ez izana.
2. Gutxienez B1 maila gaindituta izatea (egiaztatuta ala ez).

3. Aurreko ikasturtean euskara-ikastaroetara joan izana behar bezalako aprobetxamenduarekin. (Ikus Hamaseigarren oinarria. Ikastaroen aprobetxamendua).

### **6.2.2. Modalitateak**

Ikastaro horiek hemen jaso ahal izango dira:

1. Euskaltegi batean (erregimen irekian), 8:00-14:00 bitartean. **Aurrez aurrekoa**
2. Barnetegi batean (barnetegi-erregimena). Zornotzako Barnetegia (Amorebieta-Etxano) edo Maizpide (Lazkao) barnetegietara jo daiteke. Egunero 6 eskola-ordu ematen dira, eta gainerako denbora jarduera osagarrietan ematen da.

### **6.3. Autoikaskuntza ikastaroak**

Autoikaskuntzako ikastaroak lanorduetatik kanpo egingo dira, eta gutxienez 190 orduko iraupena izango dute. Ikastaro horietan parte hartzen duten langileek euskara malgutasunez ikasteko aukera izango dute programa informatiko baten bidez, eta tutore baten laguntza izango dute. Aldian-aldian, elkarrizketa-saioak eta aurrez aurreko tutoretza-saioak egingo dira.

Ikastaro hau eskatu ahal izango da, baldin eta behar bezala justifikatzen badira beste ikastaro mota batera joatea eragozten duten salbuespenezko arrazoiak (arrazoi pertsonalak edo zerbitzuaren beharrak). Hala ere, programa horretarako dauden aurrekontu-aurreikuspenen barruan jardungo da.

Autoikaskuntzan ez da onartuko ikastaroa bertan behera uztea.

### **Zazpigarrena. - Euskara ikasteko lizentzia ematen zaien langileen konpromisoak**

Deialdi honetako euskara-ikastaroetan parte hartzen duten funtzionarioek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Ikastaroen asistentzia eta aprobetxamendu egokia egitea.
- Mailak gainditzeko deitutako aldizkako ebaluazioak egitea.
- Hizkuntza-eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko azterketak egitea, dagokien mailara iristen direnean.
- Dagokion organo judizialean euskararen erabilera sustatzeko programetan aktiboki parte hartzea.

### **Zortzigarrena. – Lehentasun irizpideak**

174/2010 Dekretuari jarraituz, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak aldiro-aldiro deitzen dituen euskara-ikastaroetara nortzuk joango diren erabakitzeko, irizpide hauek erabiliko dira, ondorengo lehentasunaren arabera antolatuta:

- 1) Bereiztutako dotazioa duten langileek eta beren kidegoari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe dutenak.
- 2) Lehentasunezko zatitako organo, zerbitzu edo unitateetako langileak, horiek identifikatzen direnean.
- 3) Beren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizunetik hurbilen den euskara-maila duten langileak.
- 4) Euskararen erabilera sustatzeko programetan parte hartzen duten langileak.
- 5) Euskara-maila bera duten eskatzaileen artean, destinoko zentroan antzintasun handiena duen langileak.
- 6) Destinoko zentroan euskara-maila eta antzintasun berbera duten langileen artean, aurreko ekitaldietan eskaintako ikastaroetan aprobetxamendu onena izan duenari emango zaio lehentasuna.
- 7) Aipatutako irizpideak nahiko ez badira, langile gazteenari emango zaio lehentasuna.

#### **Bederatzigarrena. – Ikastaroetara joateko baimenak**

174/2010 Dekretuari jarraituz, euskara-ikastaroetara lanorduetan joateko baimen kopurua mugatua izango da. Hortaz, organo edo zerbitzu bereko **plantillaren %30ak** parte hartu ahalko du ikastaro horietan, nahiz eta Justizia Administrazioako Zuzendaritzak kopuru hori handitzeko ahalmena izango duen.

%30 hori neurtzeko, kokaleku desberdinetan dauden eta bereiztutako zerbitzuak ematen dituzten organo-unitateetan, ehunekoa unitate txiki horietako bakoitzean ezarriko da. Era berean, ehunekoa bereiz zenbatuko da lanorduetako 2 orduko eta 5 orduko moduluetan. Horrez gain, kontuan izango da organo judizial berean kidego bereko zenbat funtzionariori ematen zaion baimena, organoaren funtzionamendu ona bermatzeko asmoz.

5 ordukoa eskatzen duen pertsonak bere arduradun funtzionalari jakinarazi beharko dio eskabidea aurkeztu duela, jakinaren gainean egon dadin. Horren berri emateko, kopia (CC) bidaliko zaio aipatutako arduradunari, eskaera-orria posta elektronikoz bidalita.

Kopia (CC) arduradun funtzionalari bidaltzeak ez du inola ere izango emate- edo ukatze-izaerarik.

Eskatutako baldintzak betez gero, eskatutako 5 orduko lizentzia emango da, salbu eta arduradun funtzionalak, eskabidearen kopia jaso eta behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazio-epea amaitu bitartean, txosten arrazoitu bat aurkezten badu, zerbitzu-premiak direla-eta euskara ikasteko baimena ez ematea aholkatzeko. Kasu horretan, zuzendaritza horrek indargabetu egin dezake emandako behin-behineko emakida.

### **Hamargarrena. – Mailaketa-probak**

Eskaerak aztertu ondoren, deialdi honen aurreko azken 6 hilabeteetan euskara-eskoletara joan ez diren guztiek euskarazko ezaguera-maila zehazteko mailaketa-proba egin beharko dute. Mailaketa-proba hauetara deitutako langileek ezinbestean aurkeztu beharko dira, euskara inoiz ikasi ez eta 1. urratsean hasteko daudenek izan ezik.

### **Hamaikagarrena. – Taldeen antolaketa**

HABE Justizia Administrazioko langileekin aurrez aurreko taldeak antolatzen ahaleginduko da honako kasuetan:

1. Goizeko lanorduetako 2 orduko ikastaroak (8:00-10:00) Bilbon, Donostian edo Gasteizen.
2. Ikastaro trinkoak (5h) euskaltegian.

Taldea sortzen bada, ikastaroa lantokitik gertu dagoen euskaltegi batean izango da posible den neurrian. Justizia Administrazioko Zuzendaritzak eskola non izango duen jakinaraziko dio telefonoz interesdunari irailaren azken astean. Behin taldea esleitu denean, ez da aldaketarik onartuko, behar bezala arrazoitzen ez bada.

### **Hamabigarrena. – Matrikula-orria**

Talderik sortzen ez bada, Justizia Administrazioko Zuzendaritzak matrikula-orria posta elektronikoz bidaliko dio interesdunari, horrek egin duen eskaerari eta beharrezanei ondoen egokitzen zaion euskaltegia topa dezan. Ikastarook HABEk homologatutako edozein euskaltegi publiko edo pribatutan egin daitezke.

Halaber, langileek euskaltegiaren egutegira eta ordutegira moldatu beharko dute.

Komenigarria da matrikula-orria jaso behar dutenek matrikula-orri hori jaso aurretik euskaltegia bilatzen hastea, lekurik gabe gera ez daitezken. Ezinbestekoa izango da matrikula-orria euskaltegian aurkeztea ikastaroa hasten denerako.

Dena delakoarengatik eskatzaileak matrikula-orria erabiliko ez balu, Justizia Administrazioko Zuzendaritzara itzuli beharko luke lehenbailehen.



### Hamahirugarrena. - Erreklamazioak

Deialdi honetan onartu eta baztertu direnen behin-behineko zerrenda argitaratzen denean, arrazoi bat edo beste dela baztertuak izan direnek 10 egun naturaleko epea izango dute, argitaratze-dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazio-idazki bat aurkezteko Justizia Administrazioako Zuzendaritzan. Halaber, lanorduetan egiten diren ikastaroetatik baztertuak geratu direnak, erreklamazioak egiteko epe berean euskara ikastaroa lanorduetatik kanpo egiteko eskaera egin dezake.

### Hamalauugarrena. - Egutegia

Euskara ikastaroen egutegi orokorra honakoa da:

2 ordu	2020ko urriak 1 – 2021eko maiatzak 28
5 ordu	1 lauhilekoa: 2020ko urriak 1 - 2021eko otsailak 12

5 orduko ikastaroetara doan ikasleak euskaltegiak erabakitako egutegia jarraitu beharko du zehatz-mehatz, nahiz eta berak lan egiten duen organoan jaieguna izan. Euskaltegian eskolarik ez badago, ikasleak bere lantokira joan beharko du, egun bakar baterako izan arren.

Era berean, 2 orduko ikastaroa egiteko baimena duen ikasle bati beste lizentzia edo baimen bat izateko gertaera sortuko balitzaio, eta lizentzia edo baimen hori euskaltegiko eskola-ordukoen bestekoa edo horien iraupenaren zati batekoa bada, lizentzia edo baimen hori amaitu bezain laster bere lantokira itzuli beharko du lizentzia edo baimen horrek ez hartutako denbora betetzeko ikasle horrek haren ohiko lanaldia amaitu arte.

### Hamabosgarrena. – Ikastaroetara ez joatearen justifikazioa

Ondorio guztietarako, ikastaroa ematen den ikastetxea lantokitzat hartuko da.

Ondorioz, ikastaroren batera lanorduetan joaten den ikasleak bertaratze- eta puntualtasun-falta guztiak justifikatu beharko dizkio bere organo judizialeko edo zerbitzuko arduradunari, lantokira beste edozein hutsegiterekin egiten den bezala, eta Justizia Administrazioako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio (Euskara Zerbitzua). Aurrez aurreko guardiak (guardiara joaten diren langileek oso-osorik egin beharko dituzte), ezintasun iragankorrak, mediku-kontsultak eta unean uneko zerbitzuaren beharrak ez dira bertaratze-falta gisa zenbatuko, baina Justizia Administrazioako Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuari ere justifikatu beharko zaizkio.

Liberatutako ikasleak bertaratze- eta puntualtasun-falta guztiak jakinarazi beharko dizkio Justizia Administrazioiko Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzua).

### **Hamaseigarrena. – Ikastaroen aprobetxamendua**

Aprobetxamenduari dagokionez, deialdi bakoitzean kontuan izango dira aurreko ikasturteko datuak, baita ikasle bakoitzaren ikasketa-ibilbidea ere.

Ondorioz, euskara ikasteko eskaera guztiak aldatuak izan daitezke (lanorduetatik lanorduz kanpoko baimenera) edo ez onartuak aipatutako aprobetxamenduan oinarrituta.

COVID-19k sortutako egoera kontuan hartuta, 2019-20 ikasturteko aprobetxamendua Justizia Administrazioak eskoletara bertaratzea eten zuen egunera arte egindakoa izango da, hau da, 2020ko martxoaren 13ra arte.

Horren harira, deialdi honetan honakoak izango dira aprobetxamendu ez egokiak:

- Aurreko ikasturteko asistentzia emandako ordu teorikoen %80 baino baxuagoa izatea 2 orduko moduluetan –baita autoikaskuntzan ere, informatika programa eta mintza-saioak kontuan hartuta– eta %90 baino baxuagoa izatea 5 orduko moduluetan.
- Ebaluazioan eta aprobetxamenduan honako baldintza bete ez denean:  
→ 3 ebaluazioko ikasturtean ebaluazio 1 gainditzea.

### **Hamazazpigarrena. – Ikastaroan berandu hastea**

Didaktika eta antolakuntza arazoak direla medio, ikaslea ikasturteko lehen egunean hasi beharko da klasean. Aparteko kasuetan, behar bezala justifikatutako egoeretan (medikuaren baja, amatasun-baja, adopzioa edo antzekoak), onartu egingo da ikasturtean beranduago hastea; 5 klase-egun 5 orduko ikastaroetan (liberazioak) eta 10 klase-egun gainerako ikastaroetan.

Hauxe da berandu hasi ahal izateko baimena lortzeko prozedura:

- a) Ikasleak aldeztatik jakinarazi beharko dio Justizia Administrazioiko Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzuari) ez dela ikasturte hasieran eskolan hasiko aurretik aipatutako arazoirentzat bat tarteko.
- b) Ikaslea eskolan hasteko moduan dagoenean, bere eskolatzea eskatu beharko dio Justizia Administrazioiko Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzuari).

Ondorioz, adierazitako epeak igarotakoan klasera hasi ez diren langileen eskaerei baja emango zaie.

### **Hemezortzigarrena. – Ikastaroa behin betiko uztea**

Ikastaroa hasi ondoren, ikasleak ikastaroa behin betiko utzi nahi duenean, 10 egun natural izango ditu "*Jakinarazpena: Euskara-ikastaroak uztea*" (III eranskina) agiriaren bitartez Justizia Administrazioako Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzua) jakinarazteko.

Aurreko ikasturtean Zuzendaritza honen iritziz behar bezala arrazoitu gabe 2 zein 5 orduko euskara-ikastaroa utzi egin dutenek ezin izango dute lanorduetako ikastaroetan parte hartu; lanorduz kanpoko ikastaroetan parte hartzeko aukera baino ez dute izango.

Ikastaroa ez dela egingo edota utzi egingo dela ez jakinaraztea ala ezarritako epea amaitu ondoren jakinaraztea hurrengo ikasturterako eskaera ukatzeko arrazoi izango dira.

### **Hemeretzigarrena. – Lantoki aldaketa**

Funtzionarioaren kargu-uztea gertatzen bada, Justizia Administrazioako Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzuari) jakinarazi beharko dio. Lanean ez dagoen bitartean baimendutako ikastaroa egiten jarraitu ahal izango du. Baina, Justizia Administrazioan berriro lanean hasten bada, Justizia Administrazioako Euskara Zerbitzuari jakinarazi beharko dio; izan ere, euskara ikasteko baimena berriro azertu behar da, ikastaroa, egoera berria eta deialdiko irizpideak kontuan hartuta.

Nolanahi ere, langileak lanpostu berrian izan lezakeen ikastarorako aukera ezingo du gauzatu harik eta Justizia Administrazioako Zuzendaritzak (Euskara Zerbitzuak) ikastaroa onartu eta jakinarazi arte.

### **Hogeigarrena. – Orduen konpentsazioa**

1. Bi orduko ikastaroetara lanorduetan doazenek balio bereko ordu-kompentsazioa izango dute, ordutegi malguaz baliatuz. Lan-ordutegia 7:30etik 17:00etara bitartekoa da. Horri lotuta, eguneroko benetako lanaldia bete behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako Funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko Funtzionarioekin nola parekatu arautzen duen akordioaren 30. artikuluan ezartzen diren irizpideen arabera.
2. Ikastaroetara lanorduz kanpo doazenek (17:00etatik aurrera) bestelako ordu-kompentsazioa izango dute honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Ikastaroek astean gutxienez 8 eskola-orduko trinkotasuna izan behar dute eta HABEk homologatutako euskaltegietan egin behar dira.
- Ikastaro horietan gutxienerako asistentzia bete behar da, hamaseigarrena. Ikastaroen aprobetxamendua oinarrian jasotakoaren arabera.

Konpentsazioa 5 egunekoa izango da ikasturte osoari dagokionean eta 2 egunekoa lauhilekoari dagokionean. Konpentsazioa uztailetik aurrera eskatu ahal izango da.

### **Hogeita batgarrena. – Ikastaroen finantzaketa**

Lanorduetako zein lanorduz kanpoko ikastaroa egingo duen langileak matrikula-gastu guztia ordainduta izango du. Hortaz, ez du euskaltegian inolako ordainketarik egin behar. Era berean, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak bere gain hartuko ditu barnetegiko matrikula-eta egonaldi-gastuak.

Autoikaskuntza ikastaroen kasuan, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak kostuaren %70a ordainduko du eta gainerako %30a ikasleak berak ordaindu behar du matrikula egitean. Hala ere, ikasturte amaieran aprobetxamendua ona izan bada, ordaindutako dirua itzuliko zaio. Horretarako interesdunak eskaera bat bidali behar du idatziz, ordainagiriarekin batera, Justizia Administrazioako Zuzendaritzara (Euskara Zerbitzua) ikastaroa amaitu eta hiru hilabeteko epean.

Ez dira ordainduko bestelako gastu hauek: joan-etorriak, material didaktikoa etab.

### **Hogeita bigarrena. – Ikastaroak aldatzea osasun-gomendioz**

Osasun-egoera dela eta, eskaintza hori alda liteke, osasun-agintariek ezartzen dituzten arau eta gomendioen arabera. Kasu horretan, behar bezala jakinaraziko da.

II ERANSKINA

Eskaera

III ERANSKINA

Ikastaroa uztea